

El Pilar gizarte-etxeak atek zabaldu ditu

Eraikin berriak 79 ibilgailuentzako tokia duen aparkalekua, umeentzat gune berezia, ludoteka, liburutegia, ikasgela eta ikasleentzako egoitza (84 logela) ditu, besteak beste.

Bi urteko lanen ondoren, atzotik martxan da Gasteizen El Pilar gizarte-etxea, Konstituzio Plazan. 50.000 bat bizilaguni emango dio zerbitzua 3.150 metro karratuko eraikinak. Bederatzi milioi euro gastatu dituzte zentro berria eraikitzen eta, besteak beste, ekintza sozialak eta kulturalak jasoko ditu. Hain zuzen, orain arte Europa zentroan egiten ziren ekintzak egingo dira gaurtik El Pilarren. Dena dela, kirolarekin lotutako jarduerak ez dira egoitza berrian egingo.

Gizarte-etxearen inaugurazio ekitaldian, Alfonso Alonso Gasteizko alkateak esan zuen hemendik aurrera Europa zentroa kongresuak egitera bideratuko dela, horretako leku aproposa ei delako.

El Pilarrek kirol ekitaldiak hartuko ez dituela eta, EAJk zorrotz kritikatu ditu eraikinaren arduradunak, "gizarte-etxeen eredua kolokan jarri duelako PPK".

Bestalde, Alonsok atzo iragarri zuenez, Gasteizen beste hiru zentro eraikitzea onartu du Udalak.



Eraikinaren aurreko aldea